

# BEZEROEKIKO HARREMANAK



Gure bezeroekiko harremanak mantentzeko, posta elektronikoa, webgunea eta telefono zenbakia erabiliko ditugu, bezeroek dituzten edozein zalantza argitzeko.

Bestalde, gure webgunean harpidetzen diren bezeroei, deskontuak egingo dizkiegu, horrela, bezeroak harpidetzea lortuko dugu. Honen ondorioz, gure produktu berrien berri emango diegu eta salmenta gehiago izango ditugu.

Bezero berriei produktuaren berri emateko, sare sozialak erabiliko ditugu. Beherapen ezberdinak, kolekzio berriak eta beste hainbat gauza igoko ditugu sare sozialetara bezeroak informatuta egon daitezten. Gehien erabiliko dugun sare soziala Instagram izango da, gaur egun edonork duen plataforma delako, hala ere, Facebook-a ere erabiliko dugu.